


# «Kursaalean falta den dirua Udalak jar lezake»

Kuboa itxura hartzen doaz. Hiria hankaz gora dago, obrez josita. Guzti honen arduradun Martin Elizasu da. Obra Handietako zinegotziak dioskunez, Udalak arrakasta gutxi izan du Moneoren proiektu erraldoia ordaintzeko diru pribatua lortzeko garaian. Irtenbidea honakoa izan liteke: Udalaren aurrekontuan sartu edota mailegu bat eskatu.



Martin Elizasu

Irriaki Izquierdo. Argazkiak: Imanol Otegi.

**Kursaalean gertatu den istripuak kezka handia sortu du lanen arduradunengan. Kanpotik ikusita, alarma egoera zirudien, Rafael Moneoren aurpegia ikustea besterik ez zegoen.**

Ez genuen espero inondik inora horrelakorik suertatzea. Istripua ezin zitekeen gerta, baliabide guztiak baikeneuzkan ez gertatzeko. Azpiegitura guztia dugu obran bertan: Moneo beraren eta Udaleko arkitectoaren artean banatutako zuzendaritza, mota guztiko teknikariak, laborate-

giak... Proiektuaren irudian oso eragin txarra izan du istripuak, dudarik gabe.

### Non egon da akatsa?

Kontutan hartu behar da lanak 1995ean hasi zirela, eta hau bezalako obra handietan eraikitze prozesuan aldaketak egiten direla. Aurreikuspen berriak, diseinu berriak egin behar dira... eta prozesu horretan zerbaitek huts egin du, nahiz eta gaur arte ez dakigun zehazki non egon den akatsa. Ondo finkatu nahi dugu hori, baina dena den nik uste dut erantzukizuna banatua dagoela. Bestela, obrak aurrera darrai, eta erritmo onean.

**Kursaalaren finantziarioa osatzeko 1.000 milloio falta dira oraindik. Ekimen pribatuak -Kutxa edo ostalaritza mundua, esaterako-, finantziarioan laguntzen ez badu, nondik aterako da dirutza hori?**

Bi bide daude. Batetik, Udalak berak, bazkide denez, bere gain hartu eta aurrekontuetan sartzen ditu 1.000-1.500 milloio horiek. Bestela, mailegu bat eskatzen da. Oraindik gauza asko daude aztertu beharrekoak. Kursaalak aparkalekua, hamar denda, kafetegia, jatetxea, erakusketa aretoa, bulegoak eta abar.. izango ditu eta hortik diru sarrerak egongo dira aurrera begira. Inbertsioa finantziatzeko badaude aukera batzuk: aparkalekuak saldu, Kutxako aretoa deitu izan den hori saldu, edo alokatu... Diru pribatua ez da sartu oraindik, eta ez da erraza izango guk lan egin nahi genuen inbertsio pribatuaren esparru horretan akordioak lortzea.

**Udalak har al ditzake bere gain**

### 1.000-1.500 milloio hauek?

Aurrekontu bakar batean ez, noski. Baina finantziatu ditzake. Oso zaila izango da Foru Aldundiak edota Eusko Jaurlaritzak diru gehiago sartzea. Beraz bi aukera horiek daude. Aurrekontuetan sartu edo kreditua eskatu. Ez dugu erabaki oraindik nola egingo dugun. Orain arte, Udalak 2.500 milloio sartu ditu Kursaalean.

**Hainbeste obra, hainbeste inbertsio... ez al da Udala hiriaren etorkizuna hipotekatzen ari?**

Udalak ez du Donostiaren etorkizuna hipotekatu hainbeste obra martxan jartzeagatik. Gai da Kursaalak eta gainontzeko lanak sortzen dituzten gastuei aurre egiteko. Oraingoa ez da hiriak pasatu duen momenturik txarrena. Aurreko legealdian honetan baino gehiago inbertitu genuen.

Gaur egun, Kursaalez aparte, nire sailean 4.000 milloiko aurrekontua daukagu martxan. Paseo Berria, laugarren zubia, Ibaeta-Amara hiribidea, Bulebarrak, polikiroldegia... Ez dut uste etorkizunari begira Udalak arazorik izango duenik guzti honi aurre egiteko.

Joan den legealdian 6.000 milloiko

**«Obra handiak  
legealdi honetan  
eta hurrengo  
bi urtetan  
amaituko dira»**



**Jon Ander Bescos**  
Lizarrá



Bigarrenen; Champions Ligue txapelketa-  
ra joango da. Hurrengo bi partiduak iraba-  
zi behar ditu, baina lortuko du ♦



**J.J. Gaztelu**  
Kaia



Ez dakit, bada. UEFA n, bai, sartu-  
ko da, baina ez dut uste bigarren postua lortuko duenik ♦

## Zein postutan bukatuko du Liga txapelketa Realak?

**María Luisa Nogues** Atotxa



Nik ez dakit ezer, ez Realari buruz ezta zezenketei buruz ere ♦



**María Urbieto** Herrera



Ez dakit, nire gizonari galde-  
tu beharko diozu hori ♦



**Pedro Calafel** Bidebieta



Dagoen lekuan bukatuko du. Beharbada, hirugarrenean. Nik nahiko nuke bigarren izatea, baina, nire ustez, postu hori Real Madrideren eskuratuko du ♦



**Iratxe Sola**  
Irun



Hirugarrena izango da ♦

### Armazoa + Lente progresiboak



IKUSI ETA  
**SINETSIKO**  
DUZU

**21.750**  
pezeta

CADENA  
**FEDEROPTICOS**

**Federopticos LEGARDA**  
Matia 25 • DONOSTIA  
Tfnoa.: (943) 21.09.97

**Federopticos IDIAKEZ**  
Idiaketz 3 • DONOSTIA  
Tfnoa.: (943) 42.46.08

**Federopticos OARSO**  
Vicente Elizegi 9 • ORERETA  
Tfnoa.: (943) 51.67.99

**Federopticos IGMAR**  
Julian etxeberria 2 • EIBAR  
Tfnoa.: (943) 20.26.99

### ARIZALA J.M.

#### HORTZ-KLINIKA

#### MEDIKU ESTOMATOLOGOA

Odontologia orokorra

Enzien gaixotasunak

Implanteak

**Ortodonizia, gaztetxoentzat eta helduentzat**

Haurren Hortz programa

SEGUROAK:

Lagun Ara - Diputazioa - Asisa

Ipresa eta abar

Ferrerias - Olaeta plaza, 5 solairu artea

Amara Berri Ikasketxearen parean:

**Tfnoa.: (943) 45 90 45**

**EUSKARAZ BADAKIGU**

inbertsioak egin genituen urteko. Aurtengoan, batz best 3.500 ari gara inbertitzen.

**Bukatuko al dira noizbait obra guztiak?**

Inbertsio nagusiak legealdi honetan eta hurrengo bi urtetan amaituko dira. Horrela, gainera, nik uste dut hiri bezala Donostia bukatuta geldituko dela. Hiriarren irudia asko aldatuko da, kalitate aldetik asko hobetu da. Beti faltako da zerbait, baina Kurasaala edo Anoeta bezalako obra nagusiak egin beharrik ez da izango epe luze batean.

**Laugarren zubian, lanak haste-ar daude.**

Hilabete edo hilabete t' erdi

barru hasiko dira. Obra guztia esleitua dago, aurrekontua 500 milloikoa da eta bukatzeko epea 11 hilabete dira. Zubiak oso garrantzi handia izango du. Trafiko sare bat sortuko du, Egia eta Amara arteko komunikazioa erabat hobetuz. Azken ehun urteotan Donostian ez da errepide berririk egin. Betiko kale berdinetatik ibiltzen gara. Gero eta kotxe gehiago dago, eta gero eta kale gehiago ari gara oinezkoentzat uzten. Guzti horri


irteera eman behar zaio, beraz. Zubi honek garrantzi handia izango du horretarako.

**«Kurasaaleko istripua ezin ziteken gerta, baliabide guztiak baikeneuzkan gerta ez zedin»**

**Ibaeta-Amara hiribidea aurrera doa.**

Oso garrantzitsua. Abuztu aldean amaituko dute bigarren fasea. Hori egin eta gero beste gauza asko planteatu daitezke. Kontxa aldean, adibidez, errepidea amaitu eta gero, nik uste metro arinaren proiektuan pentsatzen hasi beharko genukeela. Azken finean, hiri eredu desberdina bilatu nahi dugu.

«Ibaeta Amara errepidea amaitu ondoren, metro arinaren proiektua hasi beharko dugu».



**BILINTX MEGADENDA**



- Kultura eta aisialdirako kontzeptu berria
- 800 m<sup>2</sup>

**IGANDE ETA JAIEGUNETAN ZABALIK**

**MUSIKA, BIDEOAK, ALDIZKARIAK... ETA LIBURU-SAIL GUZTIZ OSATUA**

Fermin Calbeton 21 • Tfnoa.: (943) 420080 • Faxe: (943) 422363

DATUA

12

ETXEBIZITZA

Hasiak dira banatzen Benta Berrin egiten ari diren babes ofizialeko 510 etxebizitzak zozketan esleitutakoen artean. Egunean, batez beste, 12 etxebizitza banatzen ari direla jakinarazi dute eraikitzaileek. Etxebizitza guztiak uztaierako behar dute bukatuta, baina baliteke lanak luzatzea eta epe hau gaınditzea.

# Autobusean bigarren atetik sartzeko aukera

## Proba hau Amara-Sanitaria zerbitzuan egingo da

**t**ranbia konpainia autobusetan bigarren atetik sartzeko aukera aztertzen ari da, Odon Elorza alkateak jakinarazi duenez. Askotan aipatu da oraingo txip-txartel berriekin bidaiariak mantsoago sartzen dire-


la autobusean lehenengo bonobusarekin baino. Dirudienez, Udala hori konpontzekotan dago. Horrexegatik, aurreko atea ezezik, erdikoa ere bidaiariak sar daitezen zabalik uztea aztertzen ari da.

Proba hau Amara-Sanita-

ria zerbitzuan egingo da eta ondo irtenez gero, gainerako zerbitzuetara zabalduko da.

Bigarren atetik sartzeko txip-txartela erabili beharko da derrigorrez eta horretarako makina bat jarriko da bertan. Alkateak adierazi duenez, sistema hau Wiesbaden-en eta Europako beste hiri batzuetan erabiltzen ari da, eta «herritarrek arduratsu izatea eskatzen du ezinbestean». Ildo honetatik, Udaleko iturriek esan dute beharrezkoa litzatekeela txip-txartela erabiltzen ez duten bidaiariak zigortzeko araudi berria sortzea.

Kontuan hartu behar da, gainera, datorren hilabetetik aurrera autobus zerbitzu guztiak txip-txartela sartzeko bigarren makina bat jarriko dutela aurrekaldeko atean. Beraz, Amara-Sanitariak hiru makina izango ditu.



Amara-Sanitaria zerbitzuko autobusek txip-txartelarentzat bi makina edukiko dituzte.

Argazkia: Imanol Otegi

MOKO

*mlk*

